


Noaia!!!



Mikel Arrillaga
albaitariarekin solasean



Santixabelak ate joka dira

hurbilag



gaude



IES LASARTE-USURBIL

HEZIKETA ZIKLOAK (A/D EREDUAK)



erdi maila | Administrazio Kudeaketa
Merkataritza 2

Administrazioa eta Finantzak | **goi maila**
Informatika Sistemen Administrazioa 2.

eskaintza partziala (2006-2007)

Informatika Sistemen Administrazioa.
Goi Mailako Heziketa Zikloetarako Sarbide Ikastaroa.

ZIKLOAK

Urnieta bidea z.g 20.160 Lasarte –Oria
☎ 943 370 611 / Fax: 943 363 396
✉ zikloak@instilasarte.net



Txirrikitutik !!

Ekainaren 29an San Pedro eguna ospatuko da Euskal Herriko herri eta auzo askotan. Lasarteko San Pedro jaiak dira gertuen geratzen zaizkigunak Oriokoekin batera. Betidanik, usurbildarrok ohitura handia izan dugu Lasarte zein Orioko jaietara bueltatxo bat emateko. Aurten ere horrela izango da eta segidan Santixabel jaiak hartuko dute protagonismoa. Egunkari zaharren artean begira ibili ondoren, 1993ko ekainean Egin egunkariak argitaratutako Lasarteko San Pedro jaietako gehigarrian atera zen honako argazki hau topatu dut; Usurbilgo trikitilari taldea Lasarteko Okendo plazaren ondotik, trikitixa doinuekin kaleak alaitzen. Dagoeneko ezagutuko zenituzten trikitilari eta panderojole fin hauek nortzuk diren ezta? Ezkerretik hasita Joseba Zubeldia, Nagore Segurola, Aitzol Arrospide, Miren Azkonobieta, Agurtzane Alkorta eta Aiora Arrospide.



Herriko trikitilariak Lasarteko San Pedro Jaietan, 1993.

Argazkia: Egin egunkaria.

Zalao Arnaiz Iburguren

Noaua!!

NOAUA! Kultur Elkarte BORDABERRI 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil
 Tlf: 943 36 03 21 / elkarte@noaua.com / www.noaua.com

Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehenakaria: Ana Aizpurua, elkarte@noaua.com

Aldizkariko koordinatzailea: Imanol Ubeda, erredakzioa@noaua.com

Idazkaria: Alaitz Aizpurua, elkarte@noaua.com

Publizitatea: Intza Salsamendi, publizitatea@noaua.com

Kolaboratzaileak: Lontxo Zubiria, Ane Manzidor, Maria Angeles Arruti, Ainhoa Salsamendi, Maria Jesus Urbietta, Nerea Korta, Aritz Gorriti, Jone Eizmendi, Ainara Arnaiz, Begoña Rekondo, Iñaki Agirresarobe, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Iñaki Labaka, Koldo Huegun, Aloña Loidi, Imanol Goenaga, Agustin Esnaola, Alex Tello, Pako Agudo, Sara Lazkano, Nerea Aizpurua, Alazne Begiristain, Xabier Arregi, Edorta Agirre, Pello Aranburu, Ainara Uribe, Joseba Pellejero, Maider Makazaga, Aloña Pulido, Zalao Arnaiz, Jakoba Errekondo, Ainhoa Azpiroz, Aitor Landaluze, Josu Aranberri, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Idoia Torregarai. Denborapasak: LUMA, O.E.

Bazkideztza: Aitziber Aranberri.

Erredakzio kontseilua: Imanol Ubeda, Zalao Arnaiz, Agurtzane Solaberrieta, Joxe Luis Arrastoa, Alaitz Aizpurua, Nerea Korta.

Informatika: Topaguneko informatika zerbitzua.

Banaketa: Miren Azkonobieta, Txelo Vidal eta Kerman Errekondo.

Elektrikaria: Iñaki Salsamendi.

Tirada: 2.600 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

IKA MIKA ATALEAN PARTE HARTU NAHI BADUZU, GOGOAN IZAN IDATZIAK GEHIENEZ 2.000 KARAKTERE IZANGO DITUELA. ALE BAKOITZEAN EZ DIRA BI IKA-MIKA BAINO GEHIAGO ARGITARATUKO. IKA-MIKA BAT BAINO GEHIAGO IRISTEN BADA, NOAUA!K IDATZI HORIETAKO BAT HURRENGO ALE BATEAN ARGITARATZEKO ESKUBIDEA IZANGO DU. IDATZIA ARGITARATZE-DATA BAINA ASTEBETE LEHENAGO EKARRI BEHAR DA.

NOAUA!k ez du bere gain hartzen IKA MIKA atalean eta, orohar, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Aurkibidea

LEHEN ARITZETA, ORAIN LANDARBASO **5. OR.**

MIKEL ARRILLAGAREKIN SOLASEAN **6. OR.**

LANBIDE HASTAPENENKO TAILERRAK **9. OR.**

Eskaintza zabala da Lanbide Hastapeneko tailerretan topatu duguna: sukaldaritza, gozogintza, ile-apainketa, edergintza, zurgintza... Izena emateko epea irekita dago.



UDA HONETAN, OIARDO KIROLDEGIRA **10. OR.**





EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
 Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



LUIS ARANALDE

Da Vinci Kodea

Garaitu honetan irakurri nuen duela bi urte Dan Brown-en Geleberri hau. Pirinioetara joan nintzen hamabostaldi bat pasatzera eta lehen bi egunetan eguraldi kaskarra egin zuen; liburu honen irakurketa izan zen nire dibertimendu bakarra. Literatura arloan ez dakit goi mailakoa den ala ez, baina, atzeman, "engantxatu" egin ninduen eta niretzat balekoa da.

Pelikula, aldiz, ez dut ikusi; hain kritika txarrak izan zituen Cannes-en bota zutenean, ikusteko gogo guztiak joan zitzaizkidan. Aditu batek honela zioen: "inozokeria piloa besterik ez da, absurdoa, hutsala eta aspergarria".

Izugarria izan da bere arrakasta: 40 milioi ale saldu dira jada. Oihartzun mediatikoa, berriz, ez dago neurtzerik ere. Ospearen "tsunami" izan dela diote batzuk.

Nobelaren trama honela labur daiteke: Louvre museo ospetsuko zahar berritzaile bat hil dute bertan. Robert Langdon sinboloetan aditua susmagarri bihurtzen da poliziarentzat, hildakoarekin hitzordua baitzuen. Hilketak misterioaren inguruko ikerketak Langdon bera eta Sophie Neveu batetik bestera eramango ditu, gertakizun korapilatsuetan barna eta konjurazio beltz baten barruan ikusiko dituzte euren buruak.

Opus Dei eta Vatikanoa buru belarri sartuta dabilta gertakizunotan. Jesusen historia beste modu batean gertatu ote zen ikertu beharko dute pertsonaia hauek. Istorio honetan gauza piloa nahasten du Brown-ek: Mona Lisa, Louvre-ko piramide, Opus-eko monjearen zilizioak, Jesusek haurdun utzi omen zuen Maria Magdalena, Leonardo Da Vinci maisu gorena omen zen Sion-go prioratoa... Tesi hau ez da berria, baina, Dan Brown artista da alderdi horiek guztiak lotzerakoan. "Fikzio emozionala" bezala definitu du bere nobela, zenbait pertsonaia eta gertakizun historikoetan oinarrituta.

Vatikanoak ofizialki ez du ezer esan, baina, zenbait gotzain, elizgizon, erakunde erlijiosok protesta handiak egin dituzte. Debekatua ere izan da leku batzuetan. Zerbait antzekoa gertatu zen Costa Gavras-en "Amen" eta Scorsese-ren "Kristoren azken tentaldia" rekin; batean Elizaren pasibitatea holokaustoaren aurrean kritikatzeko zen eta bestean Jesus Maria Magdalenaz maiteminduta agertzen zen.

Bizpahiru gauzatxo esan nahi nituzke Da Vinci Kodeaz:

1.- Brown-ek eskubide osoa du fikziozko obra bat egiteko; ez dauka zergatik kezkatu Elizaren edo erlijiosoen jarrera holakoa edo halakoa delako. Ez gaude ez inkisizioaren garaian, ezta "Indice" ospetsuaren (argitaratzen ziren obra arriskutsuen zerrenda zen eta Pablo VIak agindu zuen bere desagerpena 1966an) mende ere.

2.- Elizak ere baditu bere betebeharrak eta horietako bat, hain zuzen, parte hartzea da debate publikoetan gai erlijiosoak distorsionatuak edo deformatuak ager ez daitezen. Egiari bide eman diezaiozun zaindu behar du Elizak. Ez da erraza lan hau: fintasun, kontu eta arreta handiak eskatuko dizkio betekizun honek. Eta ez dezala inoiz ahantz autokritika serio bat egitea ere.

3.- Da Vinci kodeak fedea arriskuan jartzen badio norbaiti, pentsa dezala bere sinesmena oso axalekoa dela. Fikziozko obra batek ezin du mehatxatu bizitzaren zentzuaren edo Jainkoaren bilaketa serioa. Nire ustez, obra honek mesede handia egin dezake fededun bakoitzak argi ditzan bere ideiak Jainkoaz, erlijioaz, ebanjelioaz...

Bultza gaitzake ebanjelioa berriro irakurtzera eta berraurkitzera, agian, bere mezu paregabea. Pelikulako protagonista Ton Hanksek zioen: "pelikulak bultzatzen baditu elkarriketak eta debateak, kontent gelditzen naiz, nahikotzat jotzen dut nire lana".

Ainhoa Azpiroz - Aitor Landaluze - Jakoba Errekondo - Luis Aranalde - Nerea Zinkunegi - Idoia Torregerai - Jose Piñas - Aritz Gorriti

Ika-mika !

Zinegotziak: zertarako?

Udal hauteskundeak lau urtetik behin herrian. Gure izena aurkezten dugunean helburu zehatz batekin egin dugu, herriaren alde lanean jarduteko. Gure asmoa hori zen behintzat. Zubietak herri bezala nortasuna du baina nortasun hori sendotzeko nahia aldarrikatzen du. Etxebizitza gehiago eraiki dira eta horrek beste behar eta aldarrikapen batzuk sorrazten ditu. Bi udalek errekonozitu nahi ez duten proiektu bat gara, eta hala jarraitzea nahi dute eta horretan ahalegintzen dira. Gu, berriz ez!. Guk herri izaerari eutsi nahi diogu eta horretan dihardugu. Gure lana herriak nahi eta behar dituen asmoak bideratzea eta lortzea da. Herriarrek hautatu gaituzte eta hori da gure eginbeharra. Guk behintzat hala diogu!. Zubietan sortzen diren eskakizunak aztertu, bideratu

eta horiek gauzatzeko adina izerdi bota beharra dago. Horien adierazpen txiki batzuk: etxeak eraikitzeko bilerak antolatuz, zakarrontzi eta zaborra botatzeko edukiontzia eskatu, argi publikoa ezarri, apar-kalekuak sortu, kultur etxea lortu eta gestioatu... Guztiak herriaren beharrei erantzuteko eta ez interes partikular batzuen mesedetan salbuespenak egiteko. Herri Batzarrean lanean ari geranak horrela ulertzen dugu herri gestioa. Argi dugu gure indarrak metatuak ditugula juridikoki bi udalen menpe lan egin behar dugulako, baina horrek ez gaitu ez izutzen eta ez kikiltzen; kontrakoa baizik, ezinak indartzen gaitu. Herriak aldarrikatzen duenaren alde lan egitea da gure helburua, baina Usurbildar zinegotzi batzuen lan-asmoa ez dago hain argi. Ba dirudi beren nahiak

direla hemen ezinbestean aurrera atera behar omen direnak beste gauza guztien gainera ateratzea!. Ildo horretatik ez gaituzue zuen alboan izango, gure eginkizuna beste norabide batean doalako. Herriarekiko leialtasunez jokatzeko dugu eta horrela jarraitzeko asmoz gabilta. Gure eginkizun guztiak anitzak dira eta ez modu indibidual eta partikular batean eginak. Baina denborak gauzak bere lekuan jartzen ditu eta esplikazioak eskatzen dizkie diru publikoarekin gestioa eginen duten pertsonen. Etorkizun labur batean gauzak beste modu batera ulertu eta egingo diren ilusioarekin jarraitzen dugu Zubietako herriarentzat lanean.

Zubietako Herri Batzarra

Hemeroteka !!

Landarbasoko eremua proposatu du Donostiako Udalak errauste planta egiteko

Donostiako Udalak Landarbasoan dagoen Igoin Azpiko lur eremua proposatu du Gipuzkoako bigarren errauste planta egiteko (bestea Txingudin egingo da), udal batzarrak Aritzetako kokalekua bertan behera uztea erabaki ondotik. Odon Elorza Donostiako alkateak gaur Udaleko bozeramaileen batzordean aurkeztuko duen adierazpen instituzionalean kokaleku hori proposatuko du, eta, ekainaren 20ko udalbatzan bozkatzera nahi du. «Hor bukatzen da Udal Gobernuaren lana. Presiopean eta xantaia erabiliz kokaleku bat proposatzeko agindu zitzaigun, eta eskatu zaiguna egin dugu. Orain erraustearen alde dauden alderdiei dagokie euren iritzia ematea», azaldu dio Denis Itxaso Ingurumen zinegotziak Berriari.

Errauste planta non jarri erabakitzeke, Donostiako Plan Orokorren Bulegoak azterketa egin du Udalaren aginduz, eta hiru leku proposatu ditu: bat Zubietan (Atxulondo-Abalotz eremua) eta beste bi Landarbasoan (Larratz eta Igoin-Azpi). Kokaleku horiek berriak dira, izan ere, leku horiek ez ziren azaldu Diputazioak

errauste planta non jarri erabakitzeke egiteko Gipuzkoa osoko azterketan.

Denis Itxasok azaldu duenez, kokalekua zehazteko orduan, bi irizpide hartu dituzte kontuan: alde batetik, Donostiako lur eremuaren barruan egotea, eta, bestea, herri guneeetatik 2.000 metrora egotea. Hiru proposamenen artean udal teknikariek Igoin-Azpiren alde egin dute, eta horixe izango da Udalak ekainaren 20ko plenoan aurkeztuko duena. Denis Itxasok garbi utzi nahi izan du Udal Gobernuaren erraustearen aurka dagoela, eta, eurentzat ez dagoela kokaleku egokirik: «Aukera txarren artean, ez da hain aukera txarra». Igoin Azpi Donostiako erdigunetik urrun dago, eta Errenteria, Oiartzun, Astigarraga eta Hernani ditu mugakide. Handik pasako da Donostiako bigarren ingurabidea. Lursailak jabetza pribatukoak dira.

Baga Boga plataformak gogor salatu du Udalaren jarrera. Kokalekuak Hiriko Plan Orokorra paisaia eta ekologia babesteko gunetzat dauzkala ohartarazi du (...).

EAJ, BAIKOR. Xabier Ezeizabarrena Donostiako EAJko zinegotziak «oraingoz



iritzi baikorra» dutela azaldu zuen. Dena den, oraingoz Udalak proposatutako kokalekua onartzen ote duten esateko goizegi dela dio. «Orain arte denbora galtzen aritu dira, eta orain iritsi zaigu proposamena. Aztertzen ari gara». Errauste planta non jarri guztien artean erabaki behar dela uste du. «Pilota guztien teilatuan dago, hau ez da tenis partida. Donostiako udal taldeez gainera, mankomunitateek ere erabaki beharko dute». Duñike Agirrezabalaga EBko zinegotziak, ordea, bestelako iritzia du: «EAJ, EA eta PPko xantaiagileek erabaki dezatela orain non inposatu nahi duguten errauste planta».

Agurtzane Solaberrieta,
Berria, 06-06-15

Ika-mika !!

Gazteak piztuz!

Urtetik urtera festak pobretzen zihoa-zela ikusita, zerbait berria egin asmoz, gazte batzuk elkartu eta bilera batzuk antolatzen hasi ginen. Herriko gazteok, bilera izango zela-eta, Usurbilgo herri aldizkarian (NOAUA!n) publikatu genuen duela 4-5 hilabete, festetan laguntzeko prest zeuden gazteak aurkitzeko asmoz, eta bilera jende dexente azaldu zen.

Ordutik, hainbatero errepikatzen joan gara bilerak, orain arte.

Bilera horietan gazteontzako ekintza ezberdinak atera ziren eta nahiz eta jakin Santixabeletan Askatasuna plazan jarri ohi direla txoznak, herriko festa gunea zabaldu beharra ikusi genuen, eta honetarako kontzertuak kokatzeko toki berri bat (eta egozia) aurkitu behar genuen. Artzabalen zegoen frontoia egozia iruditu eta aurrera jo

genuen. Bertan ekintza ezberdin asko jarriko ditugu (BMX ekitaldia, hainbat kontzertu, joko batzuk, etabar), eta txozna zerbait sekundarioa izan zen, festa-gune batek txozna bat behar duela ikusi genuelako. Horrexegatik, lehendabiziko aldiz, aurten, herriko gazteok txozna jarriko dugu Artzabalen.

Hau erabaki aurretik, txozna batzordearekin hitz egin ez arren, Jai Batzordera jo genuen, eta inork desadostasunik ez zuenez, eta udalak laguntzeko jarrera azaldu zuenez, aurrera jarraitzea erabaki genuen. Aipatzekoa da, Jai Batzordean lehen bileratik egon garela presente eta gure ideiak adierazi ditugula, ezertxo ere ezkutatu gabe.

Gu gure artean adostasun batera iritsi aurretik, txoznan lortzen den dirua udaltxera bideratuko dugula leporatu digute

herrian, beste hainbat akusazioren artean (udalak bultzatu omen du txozna hau, udal txerearen txozna omen da, eta horrelako astakeriak). Guk oraindik ez dakigu zer egingo dugun ateratako diruarekin, eta dena hasera batetik, bileretan erabakitakoaren bidez joan da aurrera.

Horrexegatik, agiri hau idatzi dugu herrian zabaldu diren zurrumurruak isilarazteko behingoz. Urteak badira herri honetako gazteok ez dugula ezer egin eta denok berpiztu eta gero, soilik, kritikak eta irainak jaso baititugu.

Usurbildar guztion artean egin ditzagun festak ahal dugun onenak, eta denaren gaitetik, Santixabeletan izan dezagun ambiente ona.

Usurbilgo Gazte Ekimena

Mikel Arrillaga, Usurbilen dagoen Animalien Babeserako Elkarteko albaitaria

“Kaleko animaliak bildu eta hauei irteera bat ematea da gure helburua”

Animalien Babeserako Elkartea ez da txakurtegi bat. Animaliak zaintzen dira haultzat etxe berri bat aurkitu bitartean. Uda parte honetan, jendeak oporretara joaterakoan animaliak uzteko joera du. Ez da berdina, ordea, abandonatzea edo era honetako egoitza batean uztea. Mikel Arrillaga gazte usurbildarra elkarte honetako albaitarietako bat da eta egoitza honetan egiten den lana azaldu digu.

NOAUA! Ze helburuekin sortu zen Animalien Babeserako Elkartea?

Mikel Arrillaga. Kalean dauden inguruko zakur eta katuei laguntzeko sortu zen duela bederatzita bat urte. Alde batetik kalean dauden animalia horiek biltzea, eta bestetik irteera bat ematea litzateke gure helburua. Irteerarik ematen ez bazaie hemen geratzen dira. Problemarik ez badute ematen eta kupoaren arabera hemen geratzen dira. Baina noski, ezin da ekarri besteekin bizi ezin duen txakurrik. Ahal bada irteera ematen diegu, baina ezin bada, hemen geratzen dira. Hemen daukagun setter batek zortzi urte daramatza jada gurekin.

MIKEL ARRILLAGA

“300 katu, 140 zakur, lllama bat, ardiak, ahuntzak, astoak... denetik daukagu”

N. Ze animalia mota izaten dituzue?

M. A. Hirurehun bat katu, ehun eta berrogei zakur inguru, lllama bat, asto pare bat, ardiak, ahuntzak... denetik daukagu.



ATERPE IZATEAZ GAIN, KLINIKA ERE BADA ANIMALIEN BABESERAKO ELKARTEA.

N. Zeintzuk dira eskaintzen dituzuen zerbitzuak?

M. A. Alde batetik, udaletxearekin hitzarmen bat daukagu. Haiek animalia bat kalean topatzean guri deitzen digute eta gu joaten gara animalia hori jasotzera. Bestalde, klinika albaitaria daukagu, hemengo animaliak zaintzeko eta kanpoko jendearen animaliak sendatzeko.

Eta, horrez gain, pentsioa edo hotela, zakurrentzat. Pertsonen hotel arruntek duten funtzionamendu bera du. Deitu, plaza erreserbatu, zenbat egunerako izango den esan eta zakurra ekarri. Badugu rottwailer bat duela urtebete baino gehiagotik hotelean. Jabeak banandu egin zirenean ez zuten etxean izan nahi, eta hona ekarri zuten. Egunean bi aldiz ateratzen dugu paseatzera, baina horretarako hesi guztiak ixten ditugu, oso handia da eta ezin dugu beste txakurrekin eduki.

N. Udan animalia gehiago abandonatzen al dira?

M. A. Udan katu asko etortzen zaizkigu, kumeak egiten dituzten kalekatuek eta asko iristen zaizkigu. Zakurrak ere bai, dezente. Orain txakurkume dezente ditugu. Baina eraman ere egiten dituzte. Larunbatetan jende asko etortzen da txakur bila, pare bat eramaten dute larunbatero. Dezente adoptatzen da, baina hala ere etortzen diren animaliak gehiago dira.

N. Ze ardura hartzen dira animalia bat adoptatzean?

M. A. Txakur bat adoptatzerakoan txertoa eta txipa ordaindu behar dira. Gero esterilizazioa gure kontu joaten da, ez baitugu nahi zakur bat eramatea eta zakurrak kumeak egitean kume horiek hona bueltan ekarzerik. Zakur bat eraman eta lau etor daitezke! Orduan, eskatzen dena da esterilizatzea ekartzea eta zakurra ondo zaintzea edukitzea. Jendeak zakurra buel-

tan ez ekartzeko ahalegina egiten dugu, bereziki zakurra hartu eta hila-bertera aspertu egiten direnekin.

N. Tratu txarren kasuak ikusten al dituzue?

M. A. Bai, duela gutxi bat egunkarian agertu zen, "Xatur". Zakarretan agertu zen burua aitzurrarekin irekita, ez dakigu bere jabea izan ote zen hori egin ziona. Bestalde, orain azaldu berri zaigun beste txakur bat daukagu, "Kaxiano". Honi ez dakigu zer gertatu zaion, baina zulo batean agertu zen hanka bat ustelduta eta moztu egin behar izan genion. Suposatzen dut bakarrik erori zela. Badugu hor beste txakur txuri bat, Igeldoko baso batean agertutakoa, zuhaitzari lotuta zegoen.

MIKEL ARRILLAGA

"Larunbatetan jende asko etortzen da hona txakur bila"

N. Nola lagun diezaiekegu animalia hauei?

M. A. Adoptatu eta zaindu egin behar dira. Hemen ez daude gaizki zainduta, baina beti ere kaiola batean daude. Egin behar dena da hartu eta eraman.



TXAKURRAK ADOPTATZEAN EZ DA EZER ORDAINDU BEHAR.

Animalien babeserako elkarteak, ez txakurtegia

Klinika-babeslekua

Animalien Babeserako Elkarteak ez da txakurtegi bat, klinika-babesleku bat da, non animaliak etxe bat aurkitu arte bizi diren. Txakurtegi batean ez bezala, animalia hauek ez dira akabatzen denbora bat pasatakoan. Lekurik ba dago eta arazorik ez badute ematen, bertan bizi daitezke.

Etxe baten zain dauden katu eta txakurrez gain, hamabost untxi, zirko batek abandonatutako llama bat, poniak, astoak, ardiak, ahuntzak... dauzkate. Eta animaliak zaintzen badituzte ere, landareak ere atsegin dituzte. Lursail handia daukate zuhaitz eta landare ezberdinez beteta.

Hotel zerbitzua

Animalien Babeserako Elkarteak katu eta txakurrentzat hotel zerbitzua dauka. Hoteleko katuak karioletan egoten dira, zortzi plaza daude eta aurretik erreserbatu behar da. Hala ere, elkarteak etxekoren baten zaintzapean edukitzea gomendatzen du, delikatuagoak izanik gaizki pasatzen baitute bertan. Txakurren kasuan ere lehenago erreserbatu behar da. Egunean bi aldiz ateratzen zaie eta aurretik ordaindu behar da. Kasu guztietan bakunak eta mikrotxipek eguneratuta egon behar dute.

Elkarteak gogorarazten du animaliak ez liratekeela erosi edo saldu behar. Horregatik hemen dohainik adoptatzen dira, bakunak eta mikrotxipa bakarrik ordaindu behar direla. Esterilizazioa Elkarteak ordaintzen du.

Animalia nola adoptatu

Elkartearen klinika-babeslekura deitu edota bertara joan behar da, goizeko 10:00etatik 14:30era. Beren webgunean txakur eta katuen argaz-



ANIMALIAK DOAN HAR DAITEZKE, BAINA BAKUNA ETA MIKROTXIPA ORDAINDU BEHAR DIRA.

kiak ikus daitezke.

Txakur bat adoptatzeak ez dauka erosketa kosturik. 75 euro ordaindu behar dira bakuna, mikrotxipa eta desparasitazioa ordaintzeko. Esterilizazioa derrigorrezkoa da, baina bere kostuak elkarteak ordaintzen ditu (bestela, 125-220 euro artean ordaindu beharko litzateke).

Katu bat adoptatzean 60 euro ordaindu behar dira bakunazioa, leuzemia eta immunoeskasi frogak eta desparasitazioa ordaintzeko. Hauen esterilizazioa ere derrigorrezkoa da eta elkartearen kontu doa (bestela, 60-120 euro bitartekoa litzateke).

Telefona: 943 37 66 50

(10:00etatik 14:30era)

e-posta: spapg2@yahoo.es

Webgunea:

www.protectoradegipuzkoa.com

Felix Aizpurua literatur lehiaketako sariak banatu ziren Sutegin

Felix Aizpurua literatur lehiaketaren bosgarren edizioa ez da oharkabean pasa. Guztira 136 lan aurkeztu dira aurtengoan: 37 olerki eta 99 prosa-lan. Sari banaketa ekainaren 16an egin zen Sutegin.

Jabier Pikabeak aurkeztu zuen ekitaldia. Sariak banatzen, besteak beste, Luismari Ormaetxea alkatea, Julian Beloki zinegotzia, Mertxe Arzalluz (Felix Aizpuruaren alarguna) eta Udarregi ikastolako Mariaje Imaz zuzendaria aritu ziren.



SUTEGIKO AUDITORIOAN
EGIN ZEN SARI BANAKETA.

Aurten sarituak izan diren idazleak

A TALDEA (8tik 10 urtera)

LH 3. eta 4. maila

Olerkia

1. Arrate Imaz Eizagirre, "Zoragarriak dira urtaroak".
2. Haira Rivero, "Urtaroak nire gorputzean".
3. Iñaki Lertxundi Beristain, "Urtaroak/Kirola/Kalezahar".

Prosa

1. Natali Izagirre Aginaga, "Tuneleko mamua".
2. Arrate Imaz Eizagirre, "Ahate gaixoa".
3. Jon Aranzabe Zugasti, "Espaziora bidaia".

B TALDEA (10etik 12 urtera)

LH 5. eta 6. maila

Olerkia

1. Aitziber Orbegoza Aizpurua, "Negua".
2. Jon Etxabe Telleria, "Udaberriko lorea".
3. Leire Izagirre Balda, "Maitasuna".

Prosa

1. Iñaki Irazusta Furundarena, "Pug astoak ez du astolanik nahi".
2. Esther Arrojeria Arantzazistroke, "Atsoa lapurretan".
3. Peru Beloki Segurola, "Txomin pelotaria".

C TALDEA (12tik 14 urtera)

DBH 1. eta 2. maila

Olerkia

Ez da lanik aurkeztu.

Prosa

1. Kepa Zubeldia Redondo, "Kabir zaldiaren istorioa".
2. Arantzazu Zubimendi Urdanpilleta, "Deabruaren ezustekoa".
3. Garazi Basurto Korta, "Hodeietan".

D TALDEA (14tik 16 urtera)

DBH 3. eta 4. maila

Olerkia

1. Ugaitz Agirre Zapirain, "Lur maitea".
2. Ane Perez Landa, "Pena".
3. Arrate Leibar Loiti, "Bakardadea".

Prosa

1. Imanol Arrojeria Arantzazistroke, "Zergatik?".
2. Oihana Eizagirre Ascaray, "Ezkutuko sekretua".
3. Oihana Eizagirre Ascaray, "Ordua da!".

Epaimahaia: Luis Aranalde, Xabier Pikabea, Juan Luis Zabala eta Ibon Beristain.

EHNA agiria eskuratzeko aukera berri bat

UHHL Usurbilgo Herri Lan elkargu-neak aditzera eman duenez, datoren larunbatean, San Joan egunean hain zuzen, EHNA (Euskal Herriko Naziotasun Agiria) tramitatzeko aukera berria izango da Usurbilen. Goizeko 11:00etatik eguerdiko 13:00era, udaletxe aurrean. Aurkeztu beharreko agiriak: 3 argazki, errolda agiria, 18 urte beherako-entzat famili-liburuaren fotokopia. Honekin guztiarekin batera, 15 euro ordaindu behar dira EHNA eskuratzeko.

56ko kintoen afaria

Irailaren 30ean, arratsaldeko 20:30ean, 56ko kintoen afaria egingo da Olarrondo jatetxean, honako menuarekin:

-Entsalada epela, zapo eta langostinoekin.

-Porru eta ganbazko hojaldrea.

-Zapoa plantxan, perretxiku salteatuekin, pikilo saltsa eta txipiroi tintarekin.

-Solomiloa plantxan, foie-gras eta patata purearekin.

-Edaria: Rioja Vega krz., gorria, txuria, sagardoa, txakolina eta kaba.

-Etxeko postrea eta kafea.

Prezioa 50 eur o. Izena eman nahi duenak honako kontu honetan sartu beharko du dirua: 2101 0069 11 0125485359. Izen-emateko azken eguna: abuztuak 31.

84ko kintoen afaria

1984an jaiotakoak afaria antolatu dute. Santixabel bezperan, uztailearen 1ean, Errastin.

Kontribuzioa

2006ko kontribuzioa ordaintzeko borondatezko epea uztailearen 4an amaituko da. Domiziliaturik dauden agiriak uztailearen 4an kargatuko dira zergapekoen kontu korrontean.

Ekainaren 28a arte domiziliazio aldaketak onartuko dira edo domiziliatu gabe duenak kontu zenbakiaren 20 digitoak emanaz domiziliatu dezake.

Uztailearen 5etik aurrera ordaindu gabe dauden agiriak dagokien gainkarguarekin kobratuko dira.

Lanbide bat ikasteko aukera aparta

Eskaintza zabala da Lanbide Hastapeneko tailerretan topatu duguna: sukaldaritza, gozogintza, ile-apainketa, edergintza, zurgintza... Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila eta Andoain, Astigarraga, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbilen artean adosturiko lan-kidetza hitzarmenari esker lortu da hori guztia.

Usurbilen sukaldaritza, gozogintza, ile-apainketa eta edergintza ikastaroak

eskaini ohi dira. Lasarte-Orian, igeltseritza eta teknika berriak, zurgintza eta egurra ikas daiteke. Eta Andoainen, berriz, automobilaren karrozeria, galdaragintza eta soldadura ikastaroak.

Praktikak enpresetan

Lanbide bat ikasteaz gainera, lantegietan praktikak egiteko aukera zabala dute ikasleek. Horren ondorioz, lan-kontratu bat lortzeko erraztasun handiagoa ere bai.



LANBIDE BAT IKASI ETA GERO,
PRAKTIKAK EGITEKO AUKERA DAGO.

2006/2007 ikasturteko eskaintza

Especialitateak: Sukaldaritza eta gozogintza, ile-apainketa eta edergintza, igeltseritza eta teknika berriak, zurgintza eta egurra, automobilaren karrozeria, galdaragintza eta soldadura.

Nori zuzendua: 16-21 urte bitarteko gazteak, Usurbilgo herritarrak, ikasten ari ez direnak edota langabezian daudenak.

15a arte, udaletxean 943 371 951.

Sustatzaileak: Andoain, Astigarraga, Lasarte-Oria, Urnieta, Usurbilgo Udalak, Eusko Jaurlaritza, Europako Gizarte Fondoak.

Izena emateko epea: irailaren

Udajolasen izena emateko garaia da

Udajolasen izena emateko epea ekainaren 26an amaituko da.

Bi txanda antolatuko dira: lehen, uztailearen 3tik 14ra. Bigarrena, uztailearen 17tik 28ra.

Udajolas goizez egingo da, 9:00etatik 13:00era. Begiraleak pedagoak eta monitore esperientzidunak izango dira.

Izena emateko telefono zenbakiak, hauexek: 637 758 710 / 943 367 496 (arratsaldean eta gauetan).

Uztailean euskaltegia zabalik

Uda honetan euskara ikasi nahi duenak aitzakiarik ez dauka. Etxean bertan, Usurbilgo AEK euskaltegian, euskara klaseak emango dira uztailean. Udalak diruz lagunduko du Etumetaren ekimena.

Informazio gehiago Etumeta Euskaltegian eskuratuko duzu.

Helbidea: Kale Nagusia, 42 behea.

Telefonoa: 943 372 001.

e-posta: usurbil@aecknet.net

Zumarten izena emateko azken aukera

Lehengo ostiralean amaitu zen Lmatrikulazio kanpaina Zumarte Musika Eskolan. Hala ere, bada izena emateko aukerarik oraindik: musika-txokoa, musika mintzaira, helduentzako musika mintzaira, tronpeta, saxofoia, biolina, perkusioa, klarineta, abesbatza, eskusoinua, alboka, pianoa, txistua, gitarra, trabeskako flauta, trikitixa, panderoa, informatika musikala eta talde instrumentalak. Gutxieneko adina, lau urte. Telefonoa: 943 37 15 94.

Kale nagusia, 10
Telf: 943 37 33 48
943 37 09 13

Okindegia - Gozotegia

LABE-GOXO

teilatuak eta fatxadak
JOSE AIZPURUA UNANUE

Obaba kalea 29 • ASTEASU
© 943 69 68 52 • 620 800 186

LATXA
Haitze denda

Janari prekozinatua
Kongelatuak
Bertako produktuak

Abilakoa 2, Usualdi | Tel. 946 301 803

Uda honetan, Oiardo kiroldegira

Urtero legez, Oiardo kiroldegiak jarduera ugari antolatuko ditu uda honetan. 7 eta 14 urte bitarteko gazteei eskaintza erakargarria egin zaie.

Bi talde antolatuko dira. 7- 9 urte bitartekoak, batetik; 10-14 urte bitartekoak, bestetik.

Aukeran, bi dira antolatuko diren txandak. Biak, uztailean egingo dira. Uztailaren 4tik 14ra iraungo du lehen txandak. Bigarrena, uztailaren 17an hasi eta 28an amaituko da.


Bi txandatan, ordutegia berdina izango da: goizeko 10:00etatik 12:30era.

Jarduera ugari

Bi txandatan, hauexek dira landuko diren jarduerak.

- Badminton eta jolasak.
- Tenis eta boleibol.
- Herri kirolak (lokotxak, sokatiarra...).
- Joko alternatiboak eta hauekin lotutako eskulanak.
- Jolasak eta igerilekuan igeriketara.
- Boleibol eta badminton txapelketa.
- Ibilaldia.
- Hockey eta badminton txapelketa.
- Jolasak eta igerilekuan igeriketara.

Hori bai. Taldeak mugatuak izango dira. Talde bakoitzean, gehienez, 12



IGERIKETAZ GAIN, BESTELAKO KIROL JARDUERAK ERE ANTOLATU DITU

OIARDO KIROLDEGIAK.

izango dira parte hartuko duten gazteak.

Igeri hobekuntza, gazte zein helduentzat

Oiardo kiroldegiaren eskaintza oparora dela esan dugu. Lehen aipatu ditugun txanda horietaz gain, izango da igerilekuan aritzeko aukera ere. 6-8 urte bitarteko haurrentzat, "Igeri hobekuntza" ikastaroa antolatu da. Astelehen, asteazken eta ostiraletan, goizeko 9:00etatik 10:00etara.

Helduek ere, "Igeri hobekuntza" ikastaroa jasotzeko aukera izango dute. Ikastaro hau ere astelehen, aste-

azken eta ostiraletan egingo da, baina gazteen ikastaroa baino lehenago: goizeko 8:00etatik 9:00etara (gazteak baino ordubete lehenago).

Izen-ematea, kiroldegiaren bertan

Udako jarduera hauek guztiak uztailean egingo dira. Izena emateko edota informazio gehiago jasotzeko, kiroldegira jo behar da.

Oiardo kiroldegia, Gernika ibilbidea, 9
Telefonoa: 943 37 24 98

E-posta: kirolp.usurbil@udal.gipuzkoa

ASKO DUGU ESATEKO

NOAUA! astekaria, tren eta autobusen ordutegia, noaua.com, kultur ekitaldien sustapena, euskararen normalizazioa, urteko egutegia, beka deialdiak, NOAUA! Txiki, Fototeka, Plis, Plas, Txalo ta Jolas, "Usurbilgo Baserriak eta Baserritarrak"... Gure bazkideak harro egoteko moduan dira. Baina gehiago eta hobeto lan egin daiteke.

Orain, bazkide egiten bazara, Usurbilgo baserrien liburua jasoko duzu opari gisa.

Bazkide egin zaitez!



36 euro urte osorako

Izena: _____
1.Abizena: _____
2.Abizena: _____
Helbidea: _____
Herria: _____
Telefonoa: _____
E-posta: _____
Kontu Korrontea:

Orrialdea bete eta NOAUA!ra ekarri edo telefonoz deitu: 943 360 321.

Puntapax Kanoe KE ilusioz gainezka

Puntapax Kanoe Kirol Elkarte du izena duela gutxi sortu den herriko kirol taldeak. Piraguan ibiltzea gustuko duten bi herritar bildu eta proiektu txiki bat aurrera eraman nahian dabilta. Aginagako eliza zaharrea udalak lekutxo bat egin eta beraien asmoak gauzatzeko lanean ari dira. Santixabeletan, adibidez, "Kayak jaitsiera" egingo dute uztailearen leian eta Zubietako Santio jaietan ere antzeko ekintza antolatu dute.

Ilusioa dute bidelagun. Piraguan ibiltzea gustuko duten bi lagun elkartu dira, Joseba Mikel Azkorreta eta Imanol Etxaburua, eta abiapuntu modura Puntapax Kanoe Kirol Elkarte sortu dute. Izan ere, proiektu berri baten lehen urratsak eman dituzte, baina herritarrengana, eta batez ere kirol honetan zaletuak direnengana heldu nahi dute Usurbilen sortu den talde berri hau indartu asmoz.

Kirola egin eta ondo pasatzea da elkarte honen helburu nagusia. "Piraguan ibiltzen den jendea elkartu eta konpromisorik gabe, gustuko dugun kirol honetaz gozatzea nahi genuke. Herria dinamizatu nahi dugu, piraguan ibiltzen garenok elkartu, irteerak egin eta ibiltzen ez direnei ere kirol hau zertan den ezagutzeko aukera eman. Jende askok ez daki piraguan ibiltzea zer den eta kirol mota hau probatzeko aukera eman nahi genieke herritarrei".

Piragua birziklatzaileak

Momentu honetan Aginagako eliza zaharrea gordetzen dute beraien materiala. Lauzpabost piragua dituzte, baina pixkanaka pixkanaka dirulaguntzekin eta abar elkartearen materiala handitzen joatea da helburua, gero herritarrei aukera desberdinak eskaini ahal izateko. "Piragua talde batzuekin harremanak ditugu, Atletico San Sebastianekin esaterako, eta beraiek behar ez duten materiala



IRUDIAN, PUNTAPAX KANOE KIROL ELKARTEKO SORTZAILEAK.

guk jasotzen dugu konpondu eta erabili ahal izateko moduan jartzeko. Piragua birziklatzaileak garela esan daiteke".

Udalak utzitako lekuarekin ez daude oso gustura. "Prekariozko egoeran gaude. Egitasmo honekin hasi ginenean udalak ez zuen guretzako lokalik eta bertako talde batzuk erabiltzen duten Aginagako eliza zaharrea lekutxo bat utzi zigun". Hala ere, ibaiaren ertzean gune bat lortzea da beraien helburua. "Erraztasun gehiago izango genituzke, aukera gehiago. Piraguekin uretara joateko gaizki ibiltzen gara, karroa behar dugu, norbaiten laguntza behar dugu beti. Udalarekin hartu emanetan jarri eta lekutxo bat definitu beharra daukagu. Ideia txiki bat badaukagu, aurrefabrikatutako lekutxo bat jartzea Txokoaldeko zubiaren ondoan, apartokaleku handiaren parean hain zuzen ere".

Kayak jaitsiera Santixabel bezperan

Piraguan ibiltzeko aukera emateaz gain, Oria ibaia uretatik ezagutzeko osoa polita da eta aukera hori ere eskaini nahi lukete. Uztailearen leian, Santixabel jaiean barruan kayak jaitsiera antolatu dute. Arratsaldeko

17.00etatik aurrera eta Oria ibaiaren ur emariak laguntzen badu behintzat, herriko haurrek piraguan ibiltzeko aukera izango dute Oria ibaian, Zorrotzako zubitik presaraino hain zuzen ere. Horrez gain, Zubietako Santio jaietan ere, antzeko ekintza antolatu dute.

Piraguan ibiltzen den jendea beraiekin harremanetan jartzea ere gustatuko litzaieke. "Zenbait herritarrek arazoak izan ditzakete piragua non jaso ez dutelako eta gure atea irekita daude lekutxo bat gordetzeko". Horrekin batera, herria dinamizatu nahi dute, piraguan ibiltzen garenok elkartu, irteerak egin eta ibiltzen ez direnei ere kirol hau zertan den ezagutzeko aukera eman. Piraguan ibiltzen den jendea beraiekin harremanetan jartzea gustatuko litzaieke eta horretarako bi telefono zenbaki utzi dituzte: 943 372 642 (Joseba Mikel Azkorreta) eta 943 360 899 (Imanol Etxaburua).

Ilusio handiarekin daude eta aurrera jarraitzeko asmoa dute. "Ideia batzuk baditugu materiala osatzen dugunerako: Txingudira joan, Urdaibaira irteera egin piraguan ibiltzera, ikastaroak antolatu..."

San Joan sua pizteko garaia da

Ekainaren 23an, San Joan bezperan, gure baserri eta auzoetan udako solstizioa ospatzeko suak piztuko dira. Batik bat, neska-mutikoeek prestatuko dituzte suak.

Udako solstizioarekin batera argia, udaren gorespina eta garbi izatearen erritoak berpizten dira indar osoz. San Joan Bezperan, ekainaren 23an, Euskal Herriko herri, baserri eta hiri guztietan suak piztu ohi dira. Tradizioz, deabruak eta gaiztakeria uxatzeko bitartekoa zen sua. Aspaldidanik, herrietako neska-mutilek gozatzten duten festaren oinarria bihurtu da.

Soka-dantza, eguerdian

Lehengo astean esan genuen bezalaxe, San Joan eguneko soka-dantza eguerdiko 13:00ean egingo da aurtentzen. Bi oroigarri banatuko dituzte ekainaren 24an egingo den soka-dantzan. Kalezarren erroldatuta bizi



GAUEKO 22:00ETAN
PIZTU OHI DA SAN JOAN SUA.

diren auzotar zaharrenak omenduko dituzte: Maria Bautista Aburuza Otegi (96 urtekoa eta Ibarrolaundi baserrikoa) eta Joan Joxe Azurmendi Larrea (93 urtekoa eta Aritzenea etxekoa).

Giro ederra

lehen asteburuan

Aurreko larunbatean hasi ziren Ajaiak Kalezarren. Asteburu honetan jarraituko du jaigi-roak.



AUZO-BAZKARIAREKIN HASI

ZIREN SAN JOANAK.



DANTZARIEK SAID BIKAINA ESKAINI ZUTEN KALEZARGO PLAZAN.

Asteburu honetan Kalezarren ikusiko duguna

Ekainak 23, ostirala

San Joan bezpera

15:00 San Joan eskearen irteera

18:30 Buruhandiak

22:00 San Joan sua

Ondoren eskearen jarraipena



Ekainak 24, larunbata

San Joan eguna

11:00 Meza Nagusia

13:00 Soka-dantza

Ondoren Toka Lehiaketa

17:00 Zinta karrera

19:00 Sardina eta sagardo dastaketa Ostolaza eta Andonegi

trikitilariak alaiturik

23:30 Tridantz taldearekin

dantzaldia



Ekainak 25, igandea

Umeen eguna

10:00 Krosa

12:00 Umeen jolasak

16:30 Tailerrak

17:30 Gorritiren showa

Ondoren txokolatada eta buruhandiak

19:00 DJ Burrunda

jaiei amaiera emanez



Agenda

Ekainak 22. osteguna

Zumarte Musika Eskolako musika txokoko ikasleen eta hainbat talde instrumentalen kontzertua. 18:00etan Udarregi ikastolan.

Ekainak 17/ ekainak 25

- San Joanak Kalezarren (ikus 36. orrian).

Ekainak 24/ uztailak 3

- Santixabelak 2006 (egitarau osoa ale honetako erdiko gehigarrian).

Ekainak 26. astelehena

- Autoestima ikastaroa 14:45ean Santuenea elkartearen.

Ekainak 26/ ekainak 27

- Ludoteka irekia Santuenean. Santueneko belardian, 16:30etik aurrera.

Ekainak 26/ uztailak 3

- Aterpe tailerreko ikasleen erakusketa. Aterpeko pintura tailerrean, 17:00etatik 19:00etara Sutegin.

Egin kontu

Pilotalekua gainezka Pirritx eta Porrotxen saioan

Ekainaren 15ean Pirritx eta Porrotx pailazoen "Maite zaitut" ikuskizunaz gozatzeko aukera izan zen kaxkoko pilotalekuan. Eta hala egin zuten bertaratu ziren guztiek. Gaztetxoak euren guraso nahiz aiton-amonekin joan ziren, eta ederki igaro zuten bi pailazoen eta euren lagunen istorioekin.

Emanaldi honekin amaitu da Plis, Plas, Txalo ta Jolas ekitaldi-sorta; NOAUA! Kultur Elkarateak urtero udaberri partean antolatu ohi duen zikloa. Datorren urtean gehiago!



Ludoteka berezia Santuenean

Santuenea Kultur Elkarateak ur jolasak antolatu ditu bi egunetan Sjarraian, ekainaren 26an eta 27an. Ludoteka berezi hau belardian egingo da eta arratsaldeko 16:30ean hasiko da (bi egunetan, ordu berean hasiko da ludoteka). Bestetik, autoestima tailerra ez da amaitu. Ekainaren 26an beste saio bat egingo da Santueneko elkarte berrian, eguerdiko 14:45etik aurrera.

Zumartekoaren kontzertua

Ikasturte amaiera honetan, Zumarte Musika Eskolakoek hainbat jaialdi eskaini dituzte egun hauetan. Azkena ekainaren 22an osteguna izango da, arratseko 18:00etan Ikastolako aretoan. Zumarteko musika txokoko ikasleak eta hainbat talde instrumental izango dira oholta gainera igoko direnak.

Eguneko goardiako farmaziak

Ekainak 22, osteguna
De Miguel, Nagusia32 Lasarte

Ekainak 23, ostirala
Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

Ekainak 24, larunbata
Oa Kontzeju Zaharra 11 Usurbil
Gil, Nagusia 24 Lasarte

Ekainak 25, igandea
Gil, Nagusia 24 Lasarte

Ekainak 26, astelehena
Gil, Nagusia 24 Lasarte

Ekainak 27, asteartea
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

Ekainak 28, asteazkena
Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

Ekainak 29, osteguna
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

Ekainak 30, ostirala
De Miguel, Nagusia32 Lasarte

Uztailak 1, larunbata
Iturralde, Bordaberri 1 Usurbil
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

Uztailak 2, igandea
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
Aizpuru Farmazia, Latsunbeberri 11,
Hernani. 943 336 077 (Urte osoan).

2006ko egutegi osoa: www.noaua.com

Haur eta gazte txokoak

Zubietako eskola txikian

Haur eta gazte txokoak antolatu dira Zubietan H2 eta 12 urte bitarteko haurrentzat. Zubietako eskola txikian izango dira uztaila eta abuztuaren 3an hasita, 9:30etik 13:30era.

Izen-ematea jada irekita dago

Izen emateko azken eguna ekainaren 28a izango da. Interesatuak dei dezatela 606 59 48 62 telefono zenbakira.

Industri eta iragarki
SERIGRAFIA
TANPOGRAFIA

Kamistetan inprimaketa

OSU

943 371 954
UGALDEA POL.36-2-USBIL

ALIPROX

Kale Nagusia 10
☎ 943 361 182
USURBIL

J.ORBEGOZO

ITURGINTZA • GASA • BEROKUNTZA

BIZKARRA 1, 1.EBK 943372937 • 659602789

ETXEBIZITZA

- Usurbilen logela bat alokatzen da 200 euro, guztia barne. 679185102 (Iñaxio).
- Usurbilen (kaxkoan) etxe bat salgai daukagu. 3 logela, egongela, amerikar sukaldea eta trasteroa. Berritua eta igogailuarekin. 288.500?. Interesatuak deitu 667243560 telefonora.
- Usurbilgo bikote gazte batek pisua alokatu nahiko luke Usurbilen. 679 185 102.
- Usurbilen pisua bat alokairuan hartuko nuke. Tel: 630 032 779.
- Usurbilen edo inguruetan 3 haur eta 2 helduentzat alokairuan hartzeko pisu bat bilatzen dut premiaz. 620 646 769.
- Usurbilen alokairuan etxe bat behar dugu. Ordainketa bermatua. 943365737.

SALEROSKETAK / GARAJEAK

- Tata todeterreno bat saltzen dugu. 34.000 km, ondo zaindua eta aire egokituarekin. Prezioa: 7.000 euro. Negoziagarria. Interesatuak deitu 676 636 038 telefonora.
- 49 zm-tako Honada moto bat daukat salgai. Kondizio onetan eta modu onean. Interesatuak deitu 943364554 telefonora
- Garaje itxi bat alokatzen da Etxealdian, 22m2, kotxea erraz sartzen da, 76 euro. Interesatuak deitu arratsalde: 943373185.
- Lokal bat daukagu alokairuan 70m2koa. Interesatuak deitu 943 372 034.
- Aparkalekuak salgai Bizkarra 1-8 etxe taldean, Kale Nagusia 3. 607 905 859 (Imanol).
- Honda Dominator 650 cc motorra egoera oso onean. 667 172 010 (Jon).
- Garaje itxi bat alokatzen da Kale Nagusian. Interesatuak: 943 361 235.

LANPOSTUAK

Lan-eskaerak

- Udan umeak zaintzeko prest nago. Telefonoa: 687 651 605.
- 17 urteko mutil bat naiz eta ekainetik irailera bitartean Usurbil eta inguruetan gustora lan egingo nuke. Eskaintzen bat baduzu deitu 650491552 telefono zenbakira.
- Emakume bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko, umeak eta helduak zaintzeko eta antzeko lanetarako. Interesatuak deitu 630274906.
- LH eta DBHko klaseak ematen ditut euskaraz zein erdaraz. Majisteritza ikasia eta esperientziaduna klase partikularrak ematen. 635209193.
- Bi neska lizentziatu eta esperientzidunak LH eta DBHko haur eta gazteei klase partikularrak ematen ditugu euskaraz zein gazteleraz. Interesatuak: 653711574.
- Emakume bat eskeintzen da etxeko-lanak egiteko,

- pertsona helduak zaintzeko edota antzeko lanetarako. 620 646 769.
- Kamarera euskaldun bat eskaintzen da asteleheneretik ostiralera lan egiteko. 667 694 469.
- Taberna batean egingo nuke lan edo antzeko zerbituetan. 652 757 495.
- Portalak eta eskaierak garbitzeko neska bat eskaintzen da. Esperientzia horrelako lanetan. 690 784 113.
- Oporretako, ospakizunetako, edozein motatako bideoak montatzen dituen profesionala eskaintzen da. 943555835/ 617242660.

Lan-eskaintzak

- Irailetik aurrera pertsona bat behar dugu haur bat zaindu eta etxeko lanak egiteko. 943 36 71 29.
- Etxeko lanak goizez egiteko pertsona heldu bat behar dugu, esperientziduna eta euskalduna. 607233255.
- Oporraldian ordezkapen lanak egiteko neska bat behar dugu Laukote okindegian. Esperientzia izatea baloratuko da. Interesatuak deitu 943360980 telefonora.
- Etxeko lanak egiteko eta haur bat zaintzeko egun osoz, pertsona baten bila gabiltza 645403905.
- Zarautzko malekoian udan lan egiteko zerbitzariak behar dira. 661972670.

BESTELAKOAK / GALDUTAKOAK

- Terrenoa landatzeko erosi nahi dut, edifikatzeko ez. Tf: 943 36 11 09.
- Kotxe bat salgai, Opel Frontera. SS-AP, 3.000 euro. ITV eta bineta ordainduta. Telefonoa: 656 712 340 (Luis).
- Antxumeak eta ibiltzeko zaldi bat saltzen ditut. Interesatuak deitu: 657633461.
- Argazki zaharrak berritzen eta txukutzen dira, baita ezkontza, opor edota beste edozein ospakizunetako bideoak editatu ere. E-maila profesionala, modu onean. 617242660 / apore@euskalnet.net
- Telebista aldatzekotan bazara eta zer egin ez badakizu etxean daukazunarekin, gustora hartuko genuke. Deitu 943360321 telefonora eta gero ni pasako ginatke jasotzera.
- Gazteentzat lokal bat alokairuan hartuko genuke. 667 694 049.
- Fatxada margotzeko pintura naranja salgai daukat, kalitate onekoa, prezio onean. 635 209 235.
- Bustner Fun modeloko 5 pertsonentzako karabana salgai. Tf. 629 680 214.
- Umea eramateko mendiko motxila bat erosiko nuke. Tf. 605 72 48 24
- Pago egur txikitua eta lehorra salgai. Etxera eramaten da. Tf. 615 755 762.

Txerrimunik ordainetan!



Zorionak Kaxinto eta Joanita!
Urrezko etzeiak ospatu zenituzten San Antonio egunean. Muxu bat etxekoan partez eta horrela segi urte askoan!

JAIOTAKOAK

- Ruben Pilo Das Does
Ekainaren 5ean.
- Mikel Roura Arrillaga
Ekainaren 11n.
- Eki Arozena Arruti
Ekainaren 12an.

Oharrak,
Txerrimunik ordainetan
doaneko atalak dira

Datorren alea: ekainak 30.

Zorion-agurrak ekainaren 26a baino lehen ekarri edo bidali.

erredakzioa@noaua.com

NOAUA! Kultur Elkarte
Bordaberri 3 Eguzkitzaldea
20170 Usurbil

ITURGINTZA

**JOSEBA
ARANGUREN**

☎ 943 830 072
☎ 659 883 912

milorri
komunikazio ekologikoa

mantenimendua, diseinua
eta aholkularitza

Bando berri, 10 - Usurbil
☎ 660 754 774/659 157 282
milorri@euzkail.com

www.noaua.com

USURBILGO ATARIA

Alkartasuna kooperatiba

Urbil baino hurbilago

Urbilen aurkituko ez dituzun produktuak



Lore eta landareak



txapelak



alpargatak



zahatoak

Alkartasuna Nekazaritza Kooperatiba Elkarteak

alkartasuna@usurbil.com • Ugarte industrialdea 12. USURBIL • ☎ 943 361 114

Edertu zaitez!



- ✓ Depilazioa
- ✓ Manikura
- ✓ Aurpegiko tratamendua
- ✓ Pedikura
- ✓ Solariuma
- ✓ Makilatu

Nagusi 51 • Lasarte-Oria 943 370 549



Depilazioa
Makilajea
Manikura

Zubiaurrenea 4, USURBIL • ☎ 943 361 951

Elexpe
ileapaindegia



Betileen tintaketa
eta permanentea

Estetika • Tatuariak

Zutikako eta Elzandako
Solariuma

Muna-Lurra 2. ☎ 943 370 462

INTZA
ileapaindegia



ILE TRATAMENDUAK

- ✓ Betileen tintaketa
eta permanentea
- ✓ Zorriak
eta tratamendua

Eskaintza bereziak!
Solarium-eko bonuetan

K7 Nagusia 8 ☎ 943 363 641

Eskaintza
Solariuma
35€

Loli
Lizarralde
ileapaindegia

Estetika Zentroa
Michele Casanova eskutik.

Zubiaurrenea 58 ☎ 943 371 111

TXARO

- X Ite zorriak
- X Ite epinketa
- X Zutikako
solariuma



Eskabasa 8 - 943 371 885